

Islamaren zabalkundea

El Islam, nacido en los primeros decenios del siglo VII (610-632), conoció una difusión e implantación aceleradas, de forma que un siglo después alcanzaba hasta al-Andalus al Oeste (711) y el valle del Indus en la India (Sindh, 711), comenzando un proceso paulatino de afianzamiento militar, político, cultural y religioso, de resultado más o menos regional o nacional.

Islam erlijiosoa, jaio eta berehala, indar politiko-militarra ere izan zen, ez erlijiosoa bakarrik. Islama proiektu oro hartzailea zen, erlijioa, egitura politikoak, eraketa soziala eta garapen kulturala, dena batera eraman nahi zituena. Lurralde berri bat eskuratu orduko egitasmo anitz hori bere osoan egikaritzen saiatzen zen.

Lurraldeak irabazten

Lehen mendean hasitako zabalkunde/konkista bizkorra *al-futûh* terminoaren bidez aditzera eman izan da arabieraz. Mahomarekin berarekin hasi zen hori, Arabia eta inguruko lurralde hurbilak irabaztean, betiere fede berriaren segurtasuna hedatzeko asmoarekin, armak eta diplomazia erabiltzen zituela. Arabian bertan, Tabûk erreinua irabaztean, ondoko konkistetarako eredia jarrita geratu zen (631).

Ekimen militarrek ez ezik antzinatek eza-gunak ziren karabanen ibilbideak beren lana egingo dute lurralde berriak irabazteko: nomada beduinoek zabalduko dute erlijio berria, oso goiz Sirian (634-638: Damasko, Jerusalem) eta armada antolatua goek Ekialde Hurbilean (Mesopotamia, 636).

Ondoren, Arabian bere erdigunea zuela,

alde batetik Pertsia (644) eta Afganistanera iritsi ziren (655), eta bestetik Ifriqiya-raino (647: Libiatik Algeriara doan kostaldea). Xihismoaren sorrerako erreboltak ezarri zuten pausaldiaren ondoren, 670etik aitzina berriro heldu zitzaion zabalkundeari. Hain laster eta urrun iritsi zen konkista, ze 711-712etan Tariq eta Muza-k Gibraltar eta Algeciras-en zituzten beren arma-gizonak. 714an Nafarroako Ebroaldean ditugu; 718an alde egin zuen Iruñetik goarnizio bisigodoak. Pirinioetako beste muturrean, 716-719etan jabetu ziren Kataluniaz, ia Penintsula osoan nagusi bilakatzen zirela.

Ekimen militarra gorabehera, *xaria* islamiarrak erakutsi zuen politika erlijioso-zibila nondik nora eraman. Akordio praktikoak ere lagundu zuten musulmanen nagusitasuna ziurtatzen eta menpekoen estatusa egonkortzen, guztien eskubideak eta betebeharrak definituta.

Lurralde eskuratuetan, Islama erlijio hegemonikoa gertatuko zen, eta sozialki pribilegiatua, baina Liburuko erlijioa zutenei (judu eta kristauei) aparteko nortasun juridikoa aitortzen zitzaizela (*dhimma* deritzan erregimena). Horrela geratzen ziren elkarbizitzarako baldintzak adostuta, betiere *dhimmi* deituek zerga berezia ordaintzen zutela.



Zabalkundea: lorpenak eta erronkak

Mahoma *nabi* izan zen, 'Profeta', Allah-ren egia zabaltzera deitua, eta Beronen azken errebelazio osoa eta gizaki guztientzako aditzera eman behar zuena. Hori horrela, gizon-emaume guztiei Allah-ren goi-agerpen berri eta burutua emateko erantzukizuna hartu zuen Mahomak, mezuaren egiazkotasuna erabat eta osorik sinetsi baitzuen.

Betebehar hori ez zen nola-halakoa, Allah-ren manamendua baizik, hain zuzen Mahomari eta beroni bakarrik ezarri, eta gizadi osoaren salbaidetarako zegoena. Hortaz, Islamak erlijio unibertuala izan behar zuen; ez zen herri jakin bati eskainitako mezua (juduen artean, Testamentu Zaharreko *Torarekin* gertatu zen bezala).

Allah-ren borondatez, herri arabiarak izan behar zuten lehenik mezu horren zaintzaile, eta baita sinestun predikaria ere, hain zuzen Hitz bere baitan zuen Korana arabieraz idatzi eta eman baitzuen Allah-k.

Korana sortzean eta beti, arabiera izan da nonahi Islamaren hizkuntza kanonikoa, eta Misiso islamiarrean ez da egon zinezko beste hizkuntza liturgikorik. Horregatik, arabierazko Korana bere jatorriarekin ordezkatuko duen itzulpenik ez da onartzen. Hitz korandarra arabierazkoa da gaur egun ere, nahiz eta predikua eta hainbat harreman erremedio gabe beste hizkuntzetan ere egin behar izan den.

Herri berriak irabazi behar izan direnean, Islamaren unibertsaltasuna eta Hitzaren

arabierazkotasuna ez dira izan beti errazak bata bestearekin elkartzen; gogora Marokotik Indonesia eta Filipinetaraino iristen dela mundu musulmana. Hau ulertzeko adibide historiko onak dira Pertsia/Iran, edo Indiako urdueraren iragana.

Arabieraren eta pertsieraren arteko harremanean, arabieraren arrakasta denboraldi batekoa bakarrik izan zen. Oro har, Iran islamiarturik zegoen IX. mendean, eta Islamaren betiko hizkuntza ofiziala, arabiera, erlijio-bizitzan ez ezik kultura jasoan eta administrazio eta erabilera zibil ofizialetan ere nagusi izatera heldu zen.

Batzuetan pertsieratik arabierarako itzulpenak egin ziren, eta zer esanik ez, baita arabieratik pertsierara ere, betiere pertsiera ofizialki gero eta isilduagoa zela. Hala ere, erabilpen arruntagoetan Pertsia irmoki eutsi zion bere nortasunari, eta bilakaera politiko eta kulturalak (eta xihismoa ahaztu gabe) estimu eta indar berriak sortu zituzten, hizkuntza nazionalaren alde (X-XI. mendeetatik aurrera).

Bide horretatik, Koranak eta erlijio gaiek arabierari eusten zioten bitartean, herriko pertsierak arabieraren aurrean galdutako nagusitasuna berreskuratu egin zuen, eta Iranen ez ezik inguruko herrialdeetan hainbat harremanetarako *lingua franca* izatera heldu zen (India eta Erdiko Asian).

Joseba Intxausti